



## IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

# HE2 (C1 maila)

### PROBA IDATZIA

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan luzea 3) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu.**

## 1. IRAKURMENA

### Haur-literatura eta ahozketasuna

Gaur egun, normalean, liburua hartzen dugunean, intimitatean irakurtzen dugu. Eta gertatzen da, maiz gertatu ere, baldin eta liburua ozen partekatzeko (...1...) badugu, ito egiten garela liburuko esaldien korranteetan, koma eta puntuen (...2...) harrapaturik, arnasa faltako balitzaigu bezala. Agian, arrazoa bila dezakegu geure (...3...), eta ondorioztatu ez gaudela prestatuak ozen irakurtzeko. Bada beste arrazoi bat, ordea, arrazoi estetikoak (...4...): liburua ez dago prestatua ozen irakurria izan dadin; edo, beste modu batean esateko, ez dauka (...5...) ahozketasuna. Eta nire iritziz, ahozketasuna lantzen badugu, era (...6...) iritsiko gara haurrengana, eta hobeto komunikatuko. Zergatik? Bada, haurrak ahozkotik gertuago bizi direlako idatzizkotik baino.

Norbaiti, agian, (...7...) irudituko zaio ahozketasunaren puntua hemen aipatzea, baina, garrantzitsua (...8...). Ezin dugu ahaztu garai batean egiten zen literatura ia bakarra ahozkoa zela. Ahozkoak ziren *Iliada* eta *Odisea*; ahozkoak *Kalevala*, *Mahabharata* eta *Gilgamesh*; ahozkoak *Mila gau* eta *bat gehiago*, Grimm anaien *ipuinak* eta Joxe Arratibelen *Kontu zaharrak*; eta ahozkoak, noski, *Koran*, *Biblia*, *Upanishads* eta testu sakratu guztiak. Horregatik, hitza partekatzeko espazioa ere (...9...) egoten zen egokitua: finean, ahotsak mintzaleku aproposa eskatzen zuelako behar bezala entzuna (...10...).

Kontakizun gehienak, garai batean, kontatuak izaten ziren jendearen aurrean, esan nahi da errezitatuak, edota kantatuak, gure bertsolarien bertsoak bezala: zela komunitatean, zela taldean edota zela familian. Eta hau ez pentsa (...11...) kontua denik. Esaterako, Hans Christian Andersen-en (1805-1875) ipuinak hasten bagara irakurtzen, segituan konturatuko gara ozen irakurtzeko prestatuak daudela, eta horregatik direla hain (...12...). Izan ere, liburuak argitaratu aurretik, Andersenek kontatu egiten zituen ozen ipuinak, nola hurrei hala helduei: behin eta berriro kontatu jendearen aurrean, eta behin eta berriro zuzendu, (...13...) tonua aurkitu arte: ahotsa, erritmoa, kolorea... Behin eta berriro kontatu, harik eta ahots bizia topatu arte: mintzoa. Hona, 1846an, Italian zegoelarik, egunerokoan zer idatzi zuen Andersenek: «*Egun guztia pasa dut idazten; eta orain minduta daukat mihia, guztiz minduta*». (...14...) esanguratsua benetan eta guztiz argigarria Andersenek liburuak zein testuingurutan sortu ziren ulertzeko. (...15...) sutan probatzen den bezala, ozen jardunez probatzen zituen Andersenek ipuinak, eta, (...16...), ozen jardunez eta jardunez nekatu egiten zitzaion mihia; bereziki mihia, eta ez eskua. Beharbada, Andersenek liburuak horregatik ziren (eta dira) hain (...17)..., eta hain estimatuak haurren artean, ipuin klasiko guztiak bezala: ozen kontatzeko prestatuak daudelako, ahozketasunetik gertu.

(...18...), oso liburu gutxi dira gure artean modu horretan idatzi izan direnak, normalean, ahozketasunaz ahaztuta, oso (...19...) gutxi eskaintzen diogulako belarriari. Horregatik, ez da batere harrizkoa konturatzea, ondo konturatu ere, prosa (...20...) jabea den liburuak, sarritan, ez duela funtzionatzen haurren aurrean jarduteko. (...21...), gainera, ozen jardunez gero, zangopilatu egiten gara, mihia dorpetzen, begiak (...22...) ... eta zera ondorioztatzen: liburuak ez duela funtzionatzen ozen jarduteko. Nola funtzionatuko du baldin eta idazleak ez badu prestatu mintzatua izan dadin?

Eta nola iritsiko gara haurrengana ez badugu (...23...) erabiltzen? Eta lehen haurtzaroan, behinik behin, baldin eta zerbait komunikatu nahi badu liburuak, entzun egin beharko da; (...24...) entzun. Ez dago beste biderik. Liburua ez bada kontatzen ozen, eta, bide batez, entzuten, ez da iritsiko haurren gogora. (...25...), haurra gertuago bizi da ahozkotik idatzizkotik baino, esan nahi da gorputzetik: keinutik, arnasatik eta begietatik; hitzaren (...26...) gertuago, hitzaren hezurretatik baino; hitzaren taupada mugikorretik gertuago, hitzaren letra (...27...) baino. Haurtzaroan, ahotsa duen gorputza baita liburua: begiduna, bihoziduna, belarriduna zein hankaduna; ez gauzaki abstraktua, baizik (...28...) bizia eta organikoa; hitz egiten duena. Hitz egin, hitza egin: esan eta egin.

Zoritxarrez, bizi garen gizartean, oso denbora gutxi dago entzuteko. (...29...) ere, gaur egun, ez da diseinatzen elkarri entzuteko, elkar ikusteko baizik, begia organo ahalguztidun bakarra balitz bezala. Eta ahozketasuna landu nahi badugu, (...30...), begiaz gainera belarria ere landu beharko.

Zorionez, egungo haur-literaturan (haur-literatura idatzian), gero eta idazle gehiago hurbiltzen ari da ahozkoa. Errezitaldiak zein kontaketak (...31...) eskaintzen dituzte, eta, ondorioz, gero eta gehiago prestatzen dira testuak entzuteko. Gauzak horrela, gaur egungo literatura idatzian, ez da batere harritzekoa ahozko estilistikan ezagunak diren hainbat (...32...) aurkitzea. Hala nola: estilo zuzena, esaldi-errepikapenak, paralelismoak, harridura-markak, isiluneak, elipsiak, hitz indargarriak, enfatizazioak... Puntuazioa (...33...) ere, eta zer esanik ez sintaxia, gero eta gehiago hurbildu da gorputzaren arnasara, gramatikaren arau (...34...) baino. Dударik gabe, puntuazio egokiari esker, errezitatzailerak hobeto hartuko baitu arnasa, eta hobeto entzungo, eta gehiago ikusiko, eta komunikatuko hurrekin.

Horregatik, etorkizunean, ahozkoa hurbilduko duen literatura ere beharko du haurrak; eta beharko ditu testuak ozen irakurriak izan daitezen, espazio (...35...) bildurik heldua zein haurra, era kolektiboan. Azken batez, liburuarekiko (...36...) afektiboa sortzeko, haurrak behar duelako heldu bat aldamenean; heldu bat, zeinek, ozen jardunez, erakutsiko dion haurrari liburuak gordeta daraman (...37...).

Horretarako, etorkizunean ere, (...38...) ikasi beharko dugu espazioa bera, esan nahi da mintzalekua, edota beste era batean esateko: entzumenaren (...39...), ikusmenarena beste. Gizakia bizitzaren erdigune bakarra ez den bezala, begia ere ez delako erdigune bakarra. Eta begiak, etorkizunean, itsutu nahi ez badu, belarriaren (...40...) beharko duelako izan. Edota, Aritz Gorrotxategi poetaren hitzetan adieraztearren: «*Dena esanda dagoelako, baina ez entzunda*».

Pello Añorga, Behinola aldizkaria 24. zb (moldatua).

1.- a) ustea b) intentzioa c) helbururik d) ganora	2.- a) segidakoetan b) arrazonamenduan c) zurrunbiloetan d) arrazoigabekoan	3.- a) baitan b) inguruan c) eztarrian d) asmoan	4.- a) ostera b) jakina c) finean d) justuan
5.- a) pentsatua b) bere c) ikasita d) landuta	6.- a) bigunagoan b) fantasiosan c) hurbilagoan d) misterioetsuan	7.- a) harrokeria b) huskeria c) utzikeria d) ezohikoa	8.- a) deritzot b) litzaioke c) deritze d) litzaidake
9.- a) umeentzat b) hartara c) antzokian d) sutondoan	10.- a) izan zen b) izan bedi c) izan zitezen d) izan zedin	11.- a) aspaldiko b) betiko c) ditxosozko d) sekulako	12.- a) ulergaitzak b) aztogarriak c) entzungarriak d) eztitsiak
13.- a) ahalik eta b) harik eta c) zeren eta d) non eta	14.- a) Pasarte b) Imintzio c) Kronika d) Meditazio	15.- a) Egurra b) Eltzea c) Ikatza d) Eskua	16.- a) baita b) ostera c) alabaina d) antza
17.- a) entzunak b) kontatuak c) biziak d) zorientsuak	18.- a) Tamalez b) Propio c) Seguruenik d) Akaso	19.- a) kasu b) arreta c) medio d) alaitasun	20.- a) erretolikaren b) neurtuaren c) merkearen d) bikainaren
21.- a) Txitean-pitean b) Betidanik c) Behin d) Behinik behin	22.- a) lausotzen b) bustitzen c) nirnirrean d) ixten	23.- a) ipuina b) mihia c) gozoa d) burua	24.- a) gainerik b) hala ere c) birritan d) batez ere
25.- a) Halaber b) Izan ere c) Dena den d) Edonola ere	26.- a) mintzotik b) berbatik c) larrutik d) ahotsetik	27.- a) finkotik b) ahaltzutik c) etzana d) garbitik	28.- a) harri b) umetxo c) hitzontzi d) subjektu
29.- a) Antzokia b) Ikastola c) Sutondoa d) Espazioa	30.- a) badaezpada b) noizbehinka c) ezinbestez d) edonola	31.- a) trakets b) usuago c) prestatuago d) zatika	32.- a) baliabide b) kontutxo c) norabide d) arau
33.- a) inolaz b) hala c) bera d) gainera	34.- a) zabalera b) politera c) egokira d) estura	35.- a) berean b) zailean c) jakinean d) berdinean	36.- a) etenaldi b) goxotasun c) lotura d) hauspo
37.- a) bukaera b) mintzoa c) gozokia d) kontaketa	38.- a) okupatzen b) baztertzen c) zatitzen d) zaintzen	39.- a) gordelekua b) errituala c) estetika d) zarata	40.- a) bikotea b) aldamenean c) zaindaripean d) sostengua



30.....

40.....

50.....

60.....

#### 4. IDAZLAN LABURRA

**Idazlan honek 150 hitz izan behar ditu gutxienez.**

**Nolako oporrak!** Iazko Eguberrietan Parisera joan zinen oporretan. Bidaia-agentzian plan ezin hobe eskaini zizuten: hegazkinez joan, hotel ederra, bisitak... Agindutakoa eta errealitatea ez ziren bat etorri.

Hori dela eta, erreklamazio-gutun bat idatziko diezu bidaia-agentziako arduradunei. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Deskribatu/alderatu eskainitakoa eta emandakoa.
- Egin zeure balorazioa.
- Eskatu erantzutea eta kalte-ordainak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

30.....

## ERANTZUN ZUZENAK

### HE2: Irakurmena (Haur-literatura eta ahozkotasuna)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<b><u>B</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>D</u></b>

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
<b><u>A</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>D</u></b>

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
<b><u>A</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>C</u></b>

31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
<b><u>B</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>A</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>B</u></b>	<b><u>D</u></b>	<b><u>C</u></b>	<b><u>D</u></b>